



I. MARTIARENA

Tito hil zenetik Jugoslaviak ez du barne oreka politikorik lortu

Sei errepublika federatuen mapa baino konplikatua da herriena

Jugoslavia mende honetako asmakizuna da, 1918an sortu zen hiru nazioen estatua bezala (kroaziar, serbiar eta esloveniarrak), baina aldaketak izan ditu ordutan barneko egoera etniko eta politikoak. Gaur egun, desegiteko zorian dagoela dirudienan, zer nolako mapa marraztu daitekeen zaila da imajinatzea, herri nahaspila ikusita.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

1981eko azken erroldaren arabera, errepublika bakar bat da etnikoki homogeneoa (ikus goiko mapa), Eslovenia, eta hauxe da independentziarantz azkarren abiatu dena. Kroazia eta Bosnian, herri desberdinak dira nagusi eskualde desberdinetan, eta era nahiko nahaspilatuak. Serbia barneko probintzia autonomoetan, gutxiengo hungariar garrantzitsua bizi da Voivodinan (milioi erdi lagun) eta Kosovon ia guztiak albaniarrak dira.

Puzzle etnikoa, gainera, eboluzio prozesu azkar batean ari da. 1921eko erroldan, orduko organigrama politikoan baztertua zeuden hiru gutxiengo nagusi ageri ziren Jugoslavian: alemaniar, albaniar eta hungariarrak, milioi erdi lagun herri ba-

koitzak, Jugoslaviak guztira 12,5 milioi biztanle zeuzkanean. Gaur egun, alemaniarrek emigratu egin dute, hungariarren kopurua ez da aldatu, eta albaniarren hazkundera izugarria izan da: 1,9 milioi dira. Ia 24 milioi jugoslaviar daude gaur.

II. Mundu Gerrainoko estatuan, Serbiaren nagusigoa agerikoa zen, baina esloveniarrak eta kroaziarrak tentsio sortzaile izan ziren. Inestabilitatearen islada da 23 urtetan 44 gobernu izan zirena Beograd-en.

TITOREN OREKA POLITIKA Gerra garaian, dagoeneko Josip Broz Tito erresistentzia lider bihurtuta, talde antifasistek berriro «diseinatu» zuten Jugoslavia. Ordurarteko «Hiru nazioko estatua», nazioaskodun estatua bihurtu zen: sei errepublika «marraztu» ziren eta nazionalitate desberdinen eskubideak onartu: musulmanak nazio bezala kontsideratu zituzten aurrerantzean (hizkuntza serbiarrak izanik) eta montenegrotarrak ere «banatu» egin ziren serbiarrendandik.

Hala ere, errepubliken mugak zehaztean, herri banaketarekin ez zetozen bat. Gaur kroaziarren % 22 Kroaziatik kanpo bizi da, eta Serbiarren % 24 berdin, kontutan hartzeke, oraingo nazionalista serbiarrentzat montenegrotarrak eta mazedoniarrak ere «serbiar» direla.

Titok oreka politika mantentzen



Josip Broz, Tito.

saiatu zen agintean egon zen artean, 1980an hil arte. Bere garaian, errepublikek botere erabakitzaile nahiko handia lortu zuten, baina istiluak ere sortu ziren, 1968an albaniarren protestak hasi ziren, Kosovo errepublika bihurtzeko, eta Titok erreprimitu egin zituen. Hala ere, «oreka» politikaren ondorioz, gero onurak jaso zituzten albaniarrak eta autonomi handiagoa lortu zen. Tito hil zeneko, Serbiako eskualde autonomoek askatasun handia zeukaten Beograd-ekiko. Kroazian ere izan ziren protestak 71 eta 72an, eta han

✓ Serbiako mugimendu nazionalista gogorra 1987an sortu zen, Eslovenia eta Kroaziakoak baino lehenago, Milosevic-en eskutik.

ere politika bera aplikatu zuen Titok: protesta eragileak atxilotu bai, baina eskua zabaldu ondoren.

Tito hil eta gero, krisi luzea bizi du orain Jugoslaviak. Ekonomiaren egoera kaskarrari, tentsio nazionalisten areagotzea gehitu zaie. Lehen protestak 1981ean sortu ziren Kosovon, albaniarrak errepublika eskatzen hasi zirenean, gainera Serbiako eta Mazedoniako eskualdeen gaineko errebindikazioekin. Serbiak albaniarrekiko jarrera gogortu zuen, Titoren «oreka» politika ahaztuta.

1987an, botere aldaketa egon zen Serbian. Slobodan Milosevic-en ekipoak ordezkatu zuen aurrekoa. Milosevicentzat, Kosovorekiko jarrera bigunegia izan zen ordurarte eta geroztik, nazionalismo serbiarra berpizten saiatu izan da. Hain zuzen, Serbiako mugimendu nazionalista gogor hau, Eslovenia eta Kroaziakoak baino lehenagokoa izan da, eta errepublika hauen asmo independentistak nolabait Serbiaren jarrera intransigentek bultzatu ditu.

LABURREAN

EBBek «terrorismoaz» eginiko abisua erretiratu dute

Iparramerikar Estatu Departamentuak indarrik gabe utzi du duela zazpi aste estatubatuar bidaiari eginiko gomendioa. Abisuaren bidez, Washington-ek munduan zehar mugituz gero kontu haundiz ibili beharra gogorarazi zien hiritarrei, Golkoko gerra zela eta, atentaturik jaso zezaketelakoan. Iparramerikar Estatu Departamentuaren azken ohar honekin batera, turismo industria gerratean izaniko beherakada gaituz eta zuzpertz egin da.

Txinak menperatu orduko Tibeteko gizartea aztergai

Aditu txinatarrek Tibeteko antzinako egoera soziala aztertzen ari dira asteon Beijing-en. Ikerketak Txinak 1959 urtean Tibet menperatu orduko zeuden egiturak hartu dituzten kontutan. Data honetan Dalai Lama-k exiliatu egin behar izan zuen. Aditu txinatarrek Tibeteko antzinako gizartean atzeman dituzten ezaugarriak «negatiboak» dira. Beraien eritziz, urte hori baino lehen «feudalismoa nagusi zen Tibetean» eta herri hori ez zen «kanpoan dabilen askok sinesterazi nahi digun lur eder baketsua».

COLOMBIAKO hamairu gerrilari hilik

Colombia-ko hamairu gerrilari gutxienez suertatu dira hilik Armadaren kontrako borrokaldietan. Istiluak estatuko hainbat eskualdetan gertatu dira. Latzenak Alban izeneko aldean izan dira. Bertan soldaduek eta Colombiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC) taldeko partaideek elkarren kontra ihardun eta Armadak bederatzigerrilari hil ditu. Colombiako gobernuak, bestalde, Koordinakunde Nazional Gerrilariarekin (CNG) negoziatuko ez duela esan du.

MAROKKON askatutako Ufkir familia kontrolpean

Hassan II Marokko-ko erregearen aginduz hilaren 3an askatu zuten Ufkir familia ez da erabateko askatasun egoeran bizi, kontrolpean baizik, jakinerazi du 'La Cinq' telebista kateak. Hildako generalaren alarguntsa eta semealaben etxea poliziaz inguratuz dago Rabat hiriburuan eta bertakoek indar hauen baimena behar dute kaleratzeko.